

Literatura Dramatikoaren Historia eta Teoria II

Kurtsoa: 2

Kreditu kop.: 4

Deskribatzaileak:

Ondare dramatiko unibertsaleko testu garrantzitsuenen azterketa, literaturaren ikuspuntutik, honako hiru oinarrizko alderdiei dagokienez:

- Ze une historikotan sortu ziren.
- Horien alderdi formalak eta edukikoak argitzea.
- Genero desberdinak eta horien ibilbide historikoa berrikustea.
- Genero eta forma dramatikoaren eboluzioa, historian zehar.
- Mugimendu, estilo, egile eta gai desberdinen azterketa, garai bakoitzeko korrante estetikoaren eta aldaketa sozial, politiko eta ekonomiko esanguratsuen arabera.
- Arte dramatikoari buruzko testu teoriko garrantzitsuenak ezagutzea.

Konpetentziak:

Ikasleak honako hauek egiteko gai izan behar du:

- Antzerkiaren fenomenoaren ezagutzea literaturaren ikuspuntutik, egile nagusietatik eta ondare dramatiko unibertsaleatik abiatuta.
- Garai bakoitzeko oinarrizko lanak ezagutzea.
- Lan horien azterketa kritikoa egitea ahalbidetuko dioten tresna teoriko eta metodologiko oinarrizkoak erabiltzea.
- Informazio garrantzitsua bildu, aztertu, laburbildu eta egoki kudeatzea.

Ebaluazio-irizpideak:

Ebaluazioan, ikaslearen gaitasuna baloratuko da, honako helburu hauek lortzeko:

- Egile dramatiko nagusiak eta horien lan esanguratsuenak ezagutzea.
- Testu dramatiko baten egiturak identifikatu eta aztertzea, baita horien eginkizunak ere.
- Testu dramatikoaren teoria nagusiak eta eboluzio historikoa ezagutzea.
- Literatura dramatikoaren lan garrantzitsuenak oinarritzen direneko testuinguru sozial eta kulturalen ezaugarri nagusiak azaltzea.
- Lan baten eta haren testuinguru historikoaren gainean lan kritikoak egitea ahalbidetuko duten iturri desberdinak erabiltzea.

- Irizpide pertsonal bat izatea, proposatutako testu desberdinen edukia, forma eta testuingurua aztertu ahal izateko.
- Hainbat garai eta literatura-estilotako testu dramatikoaren arteko analogiak eta desberdintasunak bilatzea.
- Korrante dramatiko nagusiak eta horien eboluzio historikoa ezagutzea, baita horiek oinarritzen diren testu teorikoak edo dramatikoak ere.
- Garai historiko bakoitzeko lan dramatiko garrantzitsuenak sortu zireneko testuinguru sozial eta kulturalen ezaugarri nagusiak azaltzea.

Irakasgaiaren irizpide espezifiko horiei irakasgaiari aplikatu dakizkiokeen kompetentzia orokorretatik, zeharkakoetatik eta espezifikoetatik eratorritakoak gehitu behar zaizkio, eta ikasgai guztietarako komunak diren irizpideak ere bai: bertaratzea, puntualtasuna eta ikasteko gogoia, kontzeptu teorikoak asimilatzea eta praktikan jartzeko ahalmena, talde-lanean aritzeko gaitasuna eta eskolan jarrera proaktiboa izatea, baita aurkeztutako lanen kalitatea eta originaltasuna eta eskolako azalpenetan eta eztabaidetan izandako zehaztasuna, argitasuna eta xehetasuna. Proposatutako bibliografia ezagutzea eta erabiltzea.